

## Begoña Pedrosa izango da dekanu berria Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean

2014/02/24

**Begoña Pedrosa** (Areatza, 1975) izango da, **2014-2015 ikasturteko aurrera**, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanu berria. Bizkaitarra hamabi urte darama lanean HUHEZIn; **Ingeles Filologian lizentziaduna da eta doktorea Hizkuntzaritza aplikatuan**. Gainera, eskarmentu handia du irakaskuntzan eta proiektuen kudeaketan.

Irakasle bizkaitarrak **ibilbidea luzea du Literatura eta Hizkuntzen didaktikan irakaskuntzan**. Hartara, eskolak eman ditu Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza graduak, Atzerriko Hizkuntzako ibilbidean eta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduak. Gainera, hainbat materia sortu, inplementatu eta koordinatu ditu HUHEZIn.

Ikerketa arloan, bestalde, **Begoña Pedrosa kide da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko BAHI-IALE ikertaldekoa**. Ikerketa horretan, landu ditu, besteak beste, konpetentzia eleanitzaren garapena hizkuntza gutxituen testuinguruetan, estrategia pedagogikoak CLIL testuinguruetan eta hizkuntzen ikaskuntzarekiko ikasleen jarrerak.

MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean izan duen kudeaketa ibilbideari dagokionez, aipatu Ikerketa Mahaiko kide izandakoa dela. Egun, aldiz, arduraduna da Atzerriko Hizkuntza ibilbidean Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza Graduak; koordinatzailea Lehen eta Haur Hezkuntza Gradu *online*-an eta arduraduna da *online* gradu horietako Practicum-ena.

**Hizkuntza ugari ezagutzen ditu Begoña Pedrosak**, hala nola euskara, ingelesa, gaztelera eta katalana.

2014-2015 ikasturtearen hasiera arte, Begoña Pedrosa lanean ibiliko da gaur egungo dekanoarekin, **Nekane Arratibelekin**. Izan ere, 2014ko irailaren 1era arte ez da gauzatuko dekanuen aldaketa.



Begoña Pedrosa 2014-2015 ikasturtean hasiko da dekanu lan berrian.